

17.^{garren} Bat 50 pezetakua, bestea 40, bestea 30, eta bestea 20-kua, bertako gazta ongiyena egiñai.

18.^{garren} Bat 40 pezetakua, bestea 30, eta bestea 20-kua, bertan egiñtako guririk onenai.

19.^{garren} Bat 50 pezetakua, eta bestea 30-kua, unchia edo kone-jurik onenai, sari bakoitza irabazteko bi eme ta ar bat biar dirala.

20.^{garren} Bat 70 pezetakua, bestea 50, eta bestea 30-kua, nekazari lanetako erremienta obeto egiñai, ala beren gayaz, nola pisuz eta irautez.

ADITZERA. Ganaduen arraza alegiñ guztiyan obetzeko, zezenik onenak, au da, sarituak izaten diranak, bei-estaltzeko utzirik, zezenen sariyak emango dira: erdiya bereala, eta beste erdiya andik urtebetera, berriro zezen ori bera jabeak agerturik, bizi dan erriko Alkate jaunaren paper ziertotu batekiñ, non esango dan bei-estaltzeko iduki duela denbora orretan.

*
* * *

ZESTUA-KO

NEKAZARITZA ETA GANADUEN BILLALDIKO

L E G E A K



Zestuako Nekazaritza eta Ganaduen billaldiya, datorren Agorraren 10-ean idiki eta 11-an ichiko dana, sari-emate otsandikuarekiñ, egingo da ondoren agertzen diran muga oeki dagokiyola:

1.^{ko} Billaldira sartu nai duten ganadu, egazti eta lur-frutu guztiyak entregatu biarko dira larunbat Agorraren 10-ean, goizeko zortziyetatik amabiyetara bitartian, Bilguma antolatzailliak siñalatzten duen lekuan. Juezak erabakiko dute, jendiak parte artu gabetanik, ala ganadu nola gañerako gauza billalldiyan artu litezkenak, berezirik, beren iritzian artzeko diña ez diranak. Ontarako, kontuan iduki biar da billaldi au ez dala feriya bat, eta, onegatik, alferrik izango litzakela toki ematia, billalldiyari eranzun ez lezateken gauzai.

2.^{garren} Billaldiyan artua izaten den lur-frutu, egazti edo ganadu bakoitzaren jabiari emango zayo papercho agirizko bat bere eskubiderako.

3.^{garren} Juezak esango dute zer lekutan jarri biar diran ganaduak, ala nola gañerako lur-frutu eta gauza guztiyak.

4.^{garren} Ganaduen jabiai emango zaye ayek idukitzeko estalpea, baña beren kontura izango da bazka edo janaria, eta au ekartzen ez dutenak arkituko dute bertan modu onian.

5.^{garren} Billaldira datorren ganadu bakoitzaren jabiak agertu biarko du beria zuela aurreko sei illabetietan ere.

6.^{garren} Ganaduen arraza alegiñ guztiyan obetzeko, zezenik one-nak, au da, sarituak izaten diranak, bei-estaltzeko utzirik, zezenen sariyak emango dira: erdiya bereala, eta beste erdiya andik urtebetera, berriro zezen ori bera jabiakagerturik, bizi dan erriko Alkate jaunaren paper ziertotu batekiñ, non esango dan bei-estaltzelio iduki duela den-bora orretan.

7.^{garren} Norbaitek bere sariyaren balioa utzi naiko balu, emango zayo bitezar edo diploma bat, zeñean agertuko dan irabazi duen sariya eta nola borondatez uzten duen tokatzen zayon dirua; eta au, lenbizi-ko sari bati dagokiona baldiñ bada, aren izena ipiñiko da «Fraisoro-n» jarriko dan laurka edo kuadro onragarri batian, azaldurik lantegi eche ontako lagun ongillea dala.

8.^{garren} Sariya irabazten duen bakoitzari entregatuko zayo, tokatzen zayon diruaz gañera, bitezar edo diploma bat, zeñean agertuko dan zer sari eta zergatik irabazi duen. Bitezar edo diploma oek izango dira Diputazioko Dianagusiak firmatuak eta laurka edo kuadroetan jarriak.

9.^{garren} Emango dira sari geyago, mota edo klase bakoitzeko chikiyenetatik irutatik batez alde-aldean chikiyagoak, billaldira ganadu ekartzia ugaritzeagatik. Juezak emango diezte esantako sariyak merezi dituztela uste dutenai, baña sekulan, ezergatik ere, lenez aurretik sari guztiyetarako siñalaturik dagon diru mugatik irago gabe. 9.^{garren} lumero ontan esantako sari chikiyak, dira eman litezkenak lenago billaldiyan sari bat irabazi, eta berriro, sari aundiyagorik merezi ez dutela, ganadu edo gauz ura bera billaldira ekartzen dutenai, Probinziyako edozeiñ erritik.

10.^{garren} Billaldiyan sartutako ganadu eta egaztiyak, eziñ beren jabiak kendu edo ezkutatuko dituzte jendiak ikusteko orduetan, baldiñ eri jartzen ezpadira.

11.^{garren} Diputazio chit goituak lendabizi erosten ezpaditu, salgai izan-go dira, beren jabiak ala nai badute, ganadu eta gañerako gauzak; baña, saldurik ere, beren jabe berriyak eziñ eramango dituzte billaldiya bukatu arteraño.

12.^{garren} Billaldiyak irauten duen orduetan, larunbat Agorraren 10-ean, goizeko zortzietatik amabiyetara eta arratsaldeko ordubiyetatik iruetara, jendiak ikusi litzake ganadu eta beste gauza guztiyak; baña, iruetatik bostetara bituteko azken orduak, Juezentzat bakarrik gelditzen dira.

13.^{garren} Festen azaldean esaten dan bezela, Agorraren 11-an, arratsaldeko labetan, egingo da sari-emaldi aundiya.

Juezai dagokiyonez, ondoren agertzen diranak izango dira beren eskubide eta legeak:

1.^{ko} Billaldi ontan Juez izan biar dutenak lenez aurretik siñalatuak izango dira Zestuan egon ditezen Agorraren 9-an, au da, Billaldiya idikitzeke-bezperatik.

2.^{garren} Juez siñalatuak izango dira aski, batzuek gauza batzuetako eta besteak besteetako apartaturik, talde bakoitzak beren lanak ondo egiteko modua izan dezaten. Guztiyen nagusi edo buru izango da Probinziyako diputadu jaun bat.

3.^{garren} Juez batzuen kontura egongo da agintzia zer lekutan eta nola ganadu, egazti, lur-frutu eta gauza guztiyak jarri biar diran, lan au al bada egiñik oen baliyuaren erara, saill bakoitzian ipiñirik, biar dan moduan, sari bat bera irabazi nai dutenak.

4.^{garren} Juezak izango dute eskubidia nai dituzten agergarri guztiyak ganadu eta gauza bakoitzaren jabiari eskatzeko, zeña egongo dan ematera obligatua.

5.^{garren} Juez-taldiak bilduko dira berak ala nai duten guztiyan tokatzen zaizkaten saill bakoitzeko sariyak nola eman tratatzeko.

6.^{garren} Juez-talde guztiyak bilduko dira Agorraren 10-ean, arratsaldeko ordubiyetatik bostetara, edo biar lezateken denboran, azkeneko erabaki eta sari-emaldiya prestatzeko.

7.^{garren} Juez guztiyen iritziyak batera ezpaletorzke, erabakiyak artuko dira iritzirik geyena dagon aldetik.

8.^{garren} Juezen azken-erabakiyen kontra alchatzeko ez du iñorkere eskubiderik izango.

9,^{garren} Sari batzuek irabazi gabe geldituko balira, Juez guztiyak, batean, izango dute eskubidia billalditik kanpora emateko, baldiñ on-tarako arrazoi zuzenik balitz.

Diputazioko Dianagusia,
Manuel Lizariturry

TRIUNFO DEL "ORFEÓN BILBAINO" EN BURDEOS

El triunfo obtenido en Burdeos por el Orfeón Bilbaino el día 14 del corriente ha sido una nueva y brillante victoria, no sólo por el número y la calidad de los orfeones con quienes ha luchado, sino también por la importancia del concurso.

En el ejercicio de lectura á primera vista alcanzó por unanimidad el primer premio, y el segundo el Orfeón de París.

En los concursos de ejecución y de honor dejó asombrada á la concurrencia, que no se cansaba de aplaudir, y sus premios fueron empata-dos entre los dos orfeones, el de Bilbao y el de París.

El maestro Valle, director del primero, estuvo verdaderamente ad-mirable y los orfeonistas todos á singular altura.

Por la noche dicho orfeón dió un concierto en la espaciosísima plaza de Quinconces, en la que se reunieron unas quince mil personas. Cantó el *Ume eder bat*, el *Boga boga* y el *Gernikako arbola*, reci-biendo grandes ovaciones.

Seguramente que el Orfeón Bilbaino ha dejado grato y duradero recuerdo en Burdeos.

Al día siguiente los orfeonistas dieron un concierto en Arcachon, para donde salió de Burdeos un tren con 42 carruajes arrastrado por dos locomotoras.

Gran triunfo el de ésta expedición; acaso como ninguno en la ya larga y gloriosa historia del Orfeón Bilbaino, que fué fundado en 1886. Veamos lo que dice el importante diario de Burdeos *La Petite Gi-ronde*: